



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

BERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2011ko uztaila
38. zenbakia

ESKERRIK ASKO!!

Txalaparta Festan parte hartu dutenei zuzendutako eskutitz irikia

25. Txalaparta Festa pasa da eta berekin gure soinu-tresna eta musika maitagarriaren historian beste urrats txiki bat eman dugu. Parte hartu dugunon artean historia honen kateari urrezko beste kate-maila bat jarri diogu. Egitaraua ongi bete da eta egitarauak ongi bete du aurreikusten genuena.

Maiatzaren 15ean Saustatik Erbetegi-Etxeberrira, txalapartari historikoen baserri baserri egin genuen ibilaldian bizitutakoa aparta eta magiaz beterikoa izan zen.

Saustan jaso genuen ongietorri eztietsuaren ondoren, Joseba Zuaznabarrek, irudiz lagunduta, belaunaldiz belaunaldi Saustako txalapartariei buruzko argibideak eman zizkigun eta ondoren hiru belaunaldietako txalaparta joaldiak eskaini zizkiguten. Bukatzeko hamaiketako goxoa. Bisita hunkigarria benetan!

Saustatik Barriola baserrira. Hemen berriz ere Joseba Zuaznabarrek eman zizkigun baserri horretako txalapartariei buruzko argibideak. Santa Barbarako pareta azpiko zulo hartan txalaparta beste modu batean jo eta entzuten zen. Toki eder hartan ttakun ttan ttakunak barruagotik atera-tzen ziren eta barrurago iristen ziren.

Handik, Santa Barbara mendia inguratuz, Portuko Egaña Txikira joan ginen. Bertan Endika Zubeldiak bere etxean palanka jotzeari buruz ezagutu zuena kontatu zigun, bai eta aspalitik jotzen bere bikotekidea izan den "Kanario"rekin joaldia eskaini eta ondoren denoi jotzeko gonbidapena luzatu ere.

Urumea ibaiaren ondotik Bilandegira joan ginen. Iritsi eta 1963ko otsailean Imanol Olaizolak baserri honetako Jose, Jose Mari eta Ramon Zabalegiri grabatutako saioak entzun genituen. Emozioz gainezka entzun genuen txalaparta eta adar hotsez osatutako emanaldia. Segidan Simon

Goikoetxea eta Joseba Zuaznabarrek eskaini ziguten emozio handiko joaldi esanguratsua, Bilandegin 1963tik entzuten zen lehena. Ondoren txalapartari asko animatu ginen, autopistaz inguraturik geratu den txalapartaren habia izan den baserri honen aurreko plazan, gure joaldiak egiten.

Ibilaldia bukatzeko Erbetegi-Etxeberrira joan ginen. Baserri hori Donostiako saihebidetara berriaren eraginez orain dela zortzi hilabete bota zuten. Bertan geratu da lekuko gisa dolarea zenaren paretaren zati bat eta han elkartu ginen, jarritako txalapartaren inguruan. Simon Goikoetxeak eman zizkigun baserri horretako txalapartarien informazio orokorra eta bertan 2007an egindako agurreko ekitaldiaren azalpenak. Ondoren hasi zen bukaerako festa: Sagardoa, haragia erreta, ogia eta txalaparta, bederatzia arte giro ezin hobean.

Hainbestetan entzun ditugun baserri horietan, leku horietan izan, ezagutu, txalaparta entzun eta jotzea liluragarria eta oso esperientzi aberasgarria izan zen.

Maiatzak 17an Biteri Kultur etxean inauguratu genuen aurreko 24 txalaparta festen argazki bildumaz osatutako erakusketa eta "Txalaparta Festa. Hernani, 1987-2011" liburu eta DVDaren aurkezpena egin genuen. Bertaratu ginenok hiru formatu horietan Hernaniko Txalaparta Festaren ibilbidearen inbentario aberatsa ikusi genuen.

Ostegunean zinea, musika eta txalaparta hotsez osatutako lehen emanaldi berezia izan genuen eta ostiralean irudiak, argiak, dantza eta txalaparta uztartuz Hernaniko Txalaparta Eskolan sortutako "ttakun ttan ttakun" ikuskizuna.

Larunbateko Festa izan zen ospakizun honen erremate aparta. Lehen Txalaparta Festan parte hartu zuten

txalapartariak agertu ziren, bai eta urtez urte proiektu ezberdinetan ibilitakoak, urrutitik propio etorritakoak... ederra benetan! Goizeko joaldietan eta herri bazkarian ongi berotu ziren gure barneko gogoak eta horrela eman genion hasiera arratsaldeko Jaialdiari. Laguntzailez laguntzaile, taldez talde, txalapartariz txalapartari, guztira 72 izan zirela, banan bana jaso zuten oholtza gainean gure omenaldi, eskerrak eta ospakizun honetako oparitxoa eta oroigarria, eta asko izan ziren beren sekulako joaldiak egin zituztenak. Aipatzekoa da sekretupean antolaturik Hernaniko txalaparta Eskolako belaunaldi askotako ikasle eta ikasle ohien artean beren irakasleari eskainitako omenaldi hunkigarria.

Bihotz bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu modu ezberdinetan 25. Txalaparta Festa ospakizun hau antolatzen gure laguntzaile izan diren guztiei:

Eskerrik asko Sausta, Barriola, Egaña Txiki, Bilandegi eta Erbetegi-Etxeberriko lagunei!

Eskerrik asko gure deiarri erantzunez, urtetan gure laguntzaile eta kolaboratzaile izan zaretela etorritako guztiei! Zuek egin duzue posible guzti hau.

Behar izan dugun aurrekontu bereziari aurre egiteko babeslea izan den Hernaniko Udalarri.

Zuek bezalako lagunekin jarrai dezakegu abentura bizigarri honekin!

FAMILI APARTA
OSATZEN DUGU!

Txalaparta Festaren antolatzaile taldearen izenean
Juan Mari BELTRAN ARGIÑENA

KONTZERTUAK HM TXOKOAN Udako kontzertua

2011ko uztailaren 16an - 20,00tan - ARDITURRIN

LUDI SCAENICI

Kristo aurreko 364. urtean Erromak izurrite latza jasan zuen. Orduko erromatarrek Jainkoen haserrea baretzeko asmoz Ludi Scaenici deitutakoak sortu zituzten. Haietan *Ludiones*-ek (antzezle dantzari etruskoak) *tibiae* doinuak dantzatzen zituzten etruskoen eran.

Ludi Scaenici taldea Cristina Majnero eta Roberto Stanco-k sortu zuten *Erromatar Zibilizazioaren Museoko* zuzendaria den Anna-Maria Liberati doktorearekin makina bat urtetan zehar erromatarren musika eta dantzaren inguruan egindako ikerketen ondoren. Gaur egun taldea bost musikarik eta bi dantzarik osatzen dute. Emanaldiak dirauen artean dozenaka soinu-tresna agertzen eta jotzen dira musika eta dantza lotzen dituzten pasarteak soinu-tresna ezberdinen soloekin tartekatuz. Soinu-tresna nagusiak haien erabilpena eta jotzeko teknika ezagutzen laguntzen duten azalpen laburrekin eta haiei buruzko gertakizun bitxiak kontatuz jantzen dira. Pasarte batzuk latinez dira, testu originaletatik hala hartutakoak.

Musika, soinu-tresnak, dantza

Erromatar garaiko musika aztertzeke balio duen materiala ugaria da, musikari berari baino soinu-tresnei



lotuagoa badago ere. Hala, egia da garai hartako musika zatirik ez dela existitzen, baina zorionez zenbait soinu-tresnak gure garairaino irautea lortu dute haize, hari eta perkusio soinu-tresnak, organo hidrauliko eta airezkoak azaltzen dituzten margolanekin batera.

Material guzti horrek eta teoria ituen eta idazle latinoek egindako des-

kribapenen azterketak soinu-tresna sorta zabala berreraikitzea ahalbidetu digu haien hotsa eta formazio ohiko-enak entzuteko aukera emanez.

Horietako soinu-tresna batzuek gaur egun bizirik diraute, aldaketarik gabe, Mediterraneoako arroan, Afrikan eta Ekialde Ertainean, gaur egun, orduan bezala, kulturen artean gertatzen den trukearen lekuko.

HERRI MUSIKAREN 10. JARDUNALDIAK

Irungo Oiasso Erromatar Museoa, Oiartzungo Herri Musikaren Txokoa musika museoa eta Herri Musika Zaleak kultur elkarteak 2011ko uztailaren 15 eta 16an ospatuko diren Herri Musikaren 10. Jardunaldiak antolatzeke elkartu dira.

Aurten aukeratutako gaia berezia da. Irunen eta Oiartzunen dauden erromatar aztarnek, Irungo Kaia, Oiartzungo Arditurri meategia, besteak beste, garai hartako musika, soinu-tresnak eta ohiturak aztertzea proposatzea interesgarria dela pentsarazi die.

2010ean Irungo Oiasso Erromatar Museoa *"Feriae Oiassonis"* izeneko Jardunaldiak antolatu zituen eta tartean erromatarren musika entzuteko aukera izan zen. Hori izan zen elkarrekin garai hartako musika aztertzeke Jardunaldi hauek antolatzeke ideia piztu zuena.

Erromatarrek ekarri zuten musika, hemen aurkitu zutena, haien musikak hemengoarengan izan zezakeen eragina, soinu-tresnak,... Guzti hori jorratzeke eta aurkezteke antolatu dituzte Herri Musikaren 10. Jardunaldi hauek.

OIASSOKO BASKOIAK

Garai hartako inguru honetako balizko hotsak



Ez dugu informazio edo dokumentazio asko erromatarrak inguru honetan ibili ziren garai hartan hemen erabiliko ziren soinu-tresnei buruz eta are gutxiago zer nolako musika egingo zen jakiteko.

Gure herri musikan erabiltzen diren soinu-tresnen artean badira garai haietan eta lehenagotik ere gure artean erabiliko zirela suposatzen moduko batzuk. Gaur egungoak bezalakoak edo antzekoak zirela pentsatzeko aztarna eta froga ugari daude.

Hala, aerofonoen artean hor dauzkagu hezurrezko edo kanaberazko flautak, ondoren zurezkoak eta metalezkoak izan direnak. Hauek mota ezberdinetakoak daude: zuzenak, zeharkakoak, Pan flauten familiakoak, pistoi flautak,... Gure artean hauetako lekuko

zaharrena Isturitzeko kobazuloetan topatutako hezurrezko flauta da (Aurignac Aldia: +-20.000 urte). Burruna edo furrunfarra, zirria eta firringila motakoak ere erabiliko zirela pentsa daiteke, baita mihi bakuneko korneta, turuta eta albokak, edo mihi bikoitzeko tutubia, sunpriedua, txanbela eta dultzainak ere. Gaur egungo tronpeta eta korneten arbasoa den adarra eta hura bezalatsu jotzen direnak.

Menbrafonoen artean panderoa, danbor ezberdinak, tupinutsia-zanbonba, eltzagorra eta turutak garai hartan ere izango ziren.

Idiofono motako txalapartaren hamaika aldaera daude Euskal Herrian bertan: idaurrak, ote-jotzea, kirikoketa, toberak,... Modu ezberdinetan

eragindako kilikalaska, kalaka, matraka, karraka,...

Beste hots garrantzitsua ahotsa izan da: oihuak, irrintziak eta kantua.

Halako osagaiak erabiliz hots eta musika emanaldia osatuko dugu, inguru honetan garai batean entzun zitekeen balizko hots eta soinu giroa azaldu nahian. Erritmo jokoez gaineko bestelako doinuak herri erreperatorioko gure iritziz estilo zaharrekoak izango dira eta gehienak artzain inguru eta girokoak.

TALDEKO MUSIKARIAK

Aitor Beltran
Aitor Gabilondo
Ander Barrenetxea
Juan Mari Beltran

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Oraingo honetan afaria Arditurri meategian izango da. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa: 18 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



ERROMATARREN ETA BASKOI HAIEN MUSIKAREN INGURUAN

2011-07-15, ostirala

10:00'etan, Hitzaldia

Lekua: Oiasso Erromatar Museoa

-Daniel García: *Posible uso de instrumentación musical en el norte peninsular en época de romanización*

-Ludi Scaenici: *Spettacolo e Ricerca Sulla Musica e la Danza Nell'antica Roma*

-Juan Mari Beltran: *Garai hartako inguru honetako balizko hotsak*

14:00'etan, Bazkaria Oiasso Erromatar Museoa

16:00'etan, Mahai inguru-Tailerra

Lekua: Oiasso Erromatar Museoa

-Erromatarren eta Baskoi haien musikaren inguruan

2011-07-16, larunbata

11:00'etan, Tailerra

Lekua: Herri Musikaren Txokoa

-Ludi Scaenici. *Erromatarren musika eta soinu-tresnak*

14:00'etan, Bazkaria Kapeo jatetxean

20:00'etan, HM udako kontzertua

Lekua: Arditurri meategia

-Oiassoko Baskoiak

-Erromako Ludi Scaenici

22:00'etan, Afari herrikoia

Lekua: Arditurri meategia

-Afarria kontzertuko musikariekin

OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLAREN EGUNA

Pasa den maiatzaren 29an ospatu zuen Oiartzungo Herri Musika Eskolak bere eguna. Horretarako, goizean ikasle eta irakasleak Madalensoron bildu ziren Kontsejupean emango zuten kontzertura joan aurretik beroketa saio bat egiteko. Ondoren txistua jotzen ikasten ari diren ikasleek kale buelta bat egin zuten irakasleek lagunduta Oiartzungo plazan eta inguruko kaleetan.

Eguerdiko hamabiak aldera hasi zen kontzertua txalapartaren ttakun ttan ttakunarekin. Eskolako ia ikasle guztiak atera ziren bata bestearen segidan era ezberdinetako formazioak osatuta ikasturtean zehar landutako erreperorioaren zati bat Kontsejupera hurbildu ziren senide, lagun eta inguratutako guztiei erakustera.

Kontzertuaren ondoren kalejiran joan ziren Ibergain Elkartean antolatuta zuten bazkari goxoa jatera aurretik taberna batean edo bestean tragoxka bat hartzera geratuta.



Txaramelak astindu eta kantatzen. HMT

XANISTEBANETAN DANTZA BILERA

Heldu den abuztuaren 2an hasiko dira Oiartzungo festak, Xanistebanak. Herriko elkarte ezberdinek antolatutako egitarauaren barruan Herri Musikaren Txokoak eta Lartaun Txistulari Taldeak proposatutako dantza bilerak izango dira. Garai batean herri eta auzoetako gazteak halako bileretan elkartzen ziren dantza aitzakia hartuta elkar ezagutu eta giro hartan ongi pasatzeko. Hura gogoan hartuta abuztuaren 3 eta 5ean Doneztebe enparantzan dagoen Kastroko iturriaren ondoan izango dira bilera hauek 20:00ak eta 21:00ak artean.

Bi arratsalde horietako emanaldiek bi tarte izango dituzte. Hala, bi egun horietan Juan Mari Beltranek eta Luis Astiasaranek osatutako bikotea eta Lartaun Txistulari Taldea ariko dira. Bikoteak dultzaina eta trikitixa erabiliko ditu inguratutako guztien oinak mugiarazteko eta Lartaungoek beraien txistu, silbote eta perkusioko soinu tresnak.



Lartaungo txistularien aurrean dantzan. HMT

IKASTURTE BERRIAN SOINU-TRESNA JOTZEN IKASTEKO

Lehen aipatutako berrian Oiartzungo Herri Musika Eskolaren 2010-2011 ikasturteari amaiera eman zion kontzertua aipatzen bagenuen oraingo honetan irailen hasiko den ikasturte berriari begira jari behar dugu.

Ekainaren 30ean aurre-matrikulaziorako epea bukatuko da eta ondoren matrikulatzekoa irekiko da, uztailaren 15era arte luzatuko dena.

Eskolan jotzen ikasten daitezken soinu-tresnak txalaparta, herri-perkusioa, alboka, dultzaina, txistu eta danbolina dira. Herri-perkusioaren bane izango genituzke arxaluak, kanabera, panderoa eta danborra.

Soinu-tresnak ez-erik eskolan aurten solfeoko oinarriko maila ere ikas daiteke eta Alboka Taldean eta Dultzaina Taldean aritzeko aukera mantentzen da.



Txalaparta jotzen ikasten. HMT

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1454

Antolatutako taldeak: 43

Bisitari kopurua uztaila arte: 30.198

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 15.670

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org



OIARTZUNGO
UDALA